




BARREN
TOKIKOM



Ikertzen jarraitzea amets

Ane Rubio



Ramon San Martin Zubizarreta

2021eko otsailaren 6an hil zen, 100 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Luisa Salazar Gil

2021eko otsailaren 15ean hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Fermin Zuriarrain Ibañez

2020ko otsailaren 16an hil zen, 77 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 21ean,
11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

SARA IRIONDO OTAÑO

Gizarte hezitzailea



Ez esan inori

argia itzali eta aurrez aurre topatu ginen. Taupa-taupa bihotza eta kilimak hanka artean. Musu bat. Jarraian, ahots isilez hitz egin zidan: *ez esan inori*. Beste musu bat.

Harreman batean nork nori ordenatzen dio zer isiltzeko? Zergatik? Zertarako?

Eskorpioi jaunak bi musuen artean sartu zidan eztena, boterekeriaz, sekretuek duten erotismoaz baliatuz. Amodio-kontuak isilarazi eta berezitatat jotzearenak bere pribilegioak zaintzearekin zerikusirik izango ez balu moduan. Zast! Bizkar hezurrean kateatu zitzaizkidan hitzok. Kulturaz busti nituen izarak, sakratua behar zuena delitu bilakatu eta subjektu aktibo izateari utzi. Alde egiteko adorerik eduki ez izanagatik zigortu nuen nire burua. Es-

korpioi jaunaren aurrean belaunikatu, 8 hanken muturra miatzatu eta begietara begira esan nion: maite zaitut - pozoitze hura sendatuko zidan esperantzaz.

Ordutik nire baitan isolatuta egon naiz, mutu. Eskorpioi jaun mordoak imajinatu ditut: bikotea kanpoan dela eta maitaleari, ezkutuan, etxetik pasatzeko eskatzen diotenak; 3 maila beherago ikasten duen mutilari, pasabidean sekula agurtu ez eta iluntzean bideo dei bat egiteko eskatzen diotenak; 5 urteko ilobari ipurmasailak estutzen dizkietenak. *Ez esan inori laztana, hau gure sekretua izango da.*


Beldurrak sortzen duen dardaratik, isilarazitakoari ahotsa eman diot eta konturatzeko sabelaldeko harriak pitzatzen hasiak zaizkit. Loratzeaz gozatzeko garaia da.

Eskorpioi jaunak urrutitik zelatatzen ninduen. Eta nik bera. Begirada sarkorra zeukan. Albotik pasatzean aldakak laztantzen zizkidan, eta edozein momentutan eztena sartu eta pozoia ziztatu ziezadakeela pentsatze hutsak berotzen ninduen ni. Hain zen erakargarria, sorgintzailea.

Parranda oste batean, elkarrekin etxeratzea erabaki genuen. Pizza jan, hortzak garbitu, oheratu. Goizaldeko seietan

“Eskorpioi jaunak bi musuen artean sartu zidan eztena, boterekeriaz, sekretuek duten erotismoaz baliatuz”

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Eskolazaleen Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704</p> <p>barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.</p> <p>KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloa Anaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edune Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UDONIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	---	--



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► OSASUNA ETA COVID19A

Pasa den urtarrilak 29an *Osasuna eta Covid19-a* hitzaldi arrakastatsuan izan ginen lagun talde baten izenean idazten dugu gutun hau.

Lehenik, eskerrak eman nahi genizkieke Osasuna eta Eskubideak erakunde antolatzaileari eta baita ere hizlariari: Silvana Huegun, Ricardo Arriola eta Juanjo Martinez sendagileak hain zuzen ere. Izan ere, aditu hauek erakutsi ziguten badaudela jasaten ari garen debeku eta murrizpenez gain aukera natural ugari gure osasun eta defentsa sistema indartzeko eta garai zail hauei konfiantza gehiagoz aurre egiteko.

Honekin bat, eskutitz honen igorleok adierazi nahi dugu kezka sorrarazten digutela azkenaldian herritarron arteko salaketen bidez gertatutako hainbat zalaparta mediatikok. Horrelakoetan, sarrazazi diguten beldur eta erruduntza sentipenaren eraginez herritarron bizikidetzak kutsatzen dituzten jarrerak nagusitu daitezke eta arretaz egon beharra daukagu.

Ez dira errazak garai hauek inorentzat, are gutxiago biztanle adindu eta zaurgarrientzat, baina ezin ditugu ezta kanpoan utzi ere bizimodua eta eguneroko ogia jokoan daukaten kaltetutako herritar asko eta asko. Saiatu gaitezen egoera bakoitza perspektiba gehiagoz aztertzen, gure kontraesan propioez ere jabetzen, errudunak beste maila batzuetan ere bilatzen eta gure arteko elkartzuna sendotzen.

ISL, JBA, IIM, KGC, JMR, NIA, PBA

► GURASOAK, NON?

Bat nator galdera hau bota duenarekin. Badakit hau idazteaz bat hainbat guraso zein herritar gainera botako zaizkidala, baina denbora neraman gogo eta hau egiteko asmoarekin: Ez zait bidezkoa iruditzen pandemia egoeran egonik, eta gainera, EAEko daturik txarrenak izanik, herriko plazan zein parkeetan ematen dugun irudia. Benetan lotsagarria iruditzen zait. Bakoitzaren esku dago guztiok behin eta berriz entzun ditugun aholku zein arauari kasu egin ala ez. Baina, gogoratu, Covid19,

ez dala zure kontua bakarrik guztion esku dago honi aurre egin eta normaltasunerara heltzea.

Z.J.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitz argitaratuko.

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 934 028
www.fisio-mas.com
RPS 877/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Ballen kalea, 9, 1, ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Foru funtsetik urrian aurrikusitakoa baino 484.261 euro gehiago jasoko du Elgoibarrek eta 83.800 euro gehiago Mendarok

Gipuzkoako udalerriek 482.048.561 euro jasoko dituzte 2020 urteko Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik (UFFF). Zenbatekoa aurrekontuetan jasotakoa baino txikiagoa da, COVID-19-aren pandemiak eragin duen krisiaren ondorioz, baina urriko aurre-likidazioan ezarritakoa baino 30,8 milioi euro handiagoa da. Ondorioz, zenbateko gehigarri hau UFFFaren hurrengo ordainketan jasoko dute lurraldeko udalerriek. Elgoibarrek urrian aurrikusitakoa baino 484.261,10 euro gehiago jasoko ditu; eta, Mendarok 83.839,52 euro gehiago. Joan den astelehenean, otsailaren 15ean batu zen Gipuzkoako Finantza Kontseilua, eta bertan eman zuten 2020 urteko Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetaren likidazioaren berri. Topaketan parte hartu zuen Ane Beitia Elgoibarko alkateak, Eudelen ordezkari gisa eta baita Bittori Zabala elgoibartarrak ere, Zerga eta Finantza Politiketako zuzendaria baita. Bilera horren ostean eginiko adierazpenetan Jokin Perona Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak esan zuen, zerga bilketari dagokionean Gipuzkoak espero baino emaitza hobearrekin itxi zuela 2020 urtea, eta gaineratu zuen horrek udalen finantzaketari ere mesede egin diola. COVID-19aren pandemiak sortutako krisiak eragina izan badu ere, 2020koa Gipuzkoak izan duen inoizko hirugarren funtsik handiena dela azpimarratu zuen Peronak, "2018 eta 2019 urte-etakoek bakarrik gainditzen baitute".

Kantu Kolore taldeak ipini zion kolorea martitzen inauteri egunari



Ia oharkabeen pasatu dira aurten inauteriak. Umeak mozzorrotu dira bereziki aurtengo inauterietan, bai zapatuan eta baita martitzenean ere. Kaleran ekitaldiak antolatuzko debekuaurrean, inauterietan ohikoa izan den umeen dantzaldia Herriko Antzokira eraman dute aurten. Kantu Kolore taldeak *Ametsen urtebetetzea* ikuskizuna taularatu zuen, eta beste hainbat abestirekin batera, Peru krokodiloa eta elefante Martin ere han izan ziren. Bi saio eskaini zituzten, eta umeek gogotik egin zuten dantza.

Kiroldegiko saunak egun osoz zabalduko dituzte

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, otsailaren 16az geroztik martitzen eta egunetan ere zabalduko dituzte goizez Olaizaga Kiroldegiko saunak. Orain arte asteko bi egun horietan saunak arratsaldez bakarrik irekitzen zituzten eta gainerako egunetan goiz eta arratsaldez, baina azken hilabete hauetan (abenduan berriro ireki zituztenetik) abonatuaren artean saunak izan duten "harrera ona eta eskaera handia" kontutan hartuta ordutegia zabalteza erabaki du Udal Kirol Patronatuak. Segurtasun neurriak zaintzeko, bakarkak, familia edo bizikidetzara unitateka erabili beharko dira, eta gehienez ordu eta erdiz. Era berean jakinarazi dute sauna hezea ez dagoela oraindik erabilgarri.

Abonatuak online egin dezakete erreserba, www.elgoibar.eus helbidean, bai etabaita telefonoz edo kiroldegiko harretara joanda ere.

Saunen ordutegia honakoa da:

- Asteleheneetik barikura: 9:00-21:00
- Zapatueta: 9:00-12:00 eta 15:00-19:30
- Domeka eta jai egunetan: 9:00-13:30

Moru mendian 600 zuhaitz landatu ditu Elgoibarko Udalak

Moru mendiko ingurunea zaintzeko eta berreskuratzeko 600 zuhaitz landatu ditu Elgoibarko Udalak, 2017an hasitako Moru mendiko ingurunearen lehengoratzeko prozesuaren barruan. Burdin Aroko herrixka baten aztarnak daude Morun, eta hori dela-eta bertako ingurunea zaindu eta hari balioa ematea garrantzitsua dela uste dute Udalako arduradunek. Paisaiaren Ekintza Plana idatzi zuen Udalak 2017an, Moru mendiaren gailurra erosi zuenean, eta 2018an hasi zen lehengoratzeko lanekin. Pinuak bota zituzten, eta lurra garbitu ondoren, bertako 160 zuhaitz landatu zituen Elgoibarko ikastetxeetako eskola-umeekin batera, balio arkeologikoa duen eremutik kanpo. Dena den, inausketaren ondoren, landaretza autoktono gutxi hedatu da bere kabuz eta Udalak beharrezkoa ikusi du bertako zuhaitzak landatzea. Besteak beste, pagoa, bertako haritz eta bertan sortuta dauden lizarrak, gaztainondoak, urkiak, gorostiak landatu dituzte. 3.200 euroko inbertsioa egin du Udalak (BEZa kanpo). 2019ko Zuhaitz Egunean ere 160 zuhaitz landatu zituzten Herri Eskolako eta Ikastolako ikasleek Moru mendiko magal batean. Udaletik jakinarazi dute bestalde, herrigunean ere beste 50 zuhaitz landatuko dituztela, berdeguneak ugaritzeko.



30 urteko gazte aulestiarra hil zen astelehenean Azkarateko bidean moto istripuan



Astelehen goizean moto istripua izan zuen Aitor Esteban Artaetxebarria 30 urteko gazteak Azkarateko bidean, eta erorikoaren ondorioz hil zen. Ertzaintzak azaldu zuenez, goizeko 8:45 inguruan izan zen istripua. Oraindik argitu gabe dauden arrazoien ondorioz moto gidariak kontrola galdu eta errepidetik irten zen. Larrialdi zerbitzuak iristean ez zuten ezer egiterik izan, ordurako hilotz zegoelako gidaria. Aulestiko (Bizkaia) zinegotzia zen Aitor Esteban (EA) alderdiaren zerrendako bigarrena zen), eta Azpeitiko lantegi batean lan egiten zuen.

Elgoibarko Kirol Patronatuak mantendu egingo ditu abonuen kuotak

Kirol Patronatuak erabaki du abonuen kuotak bere horretan mantentzea, bigarren urtez. Horrez gain, pandemiak eragindako itxierengatik, 2020ko abonuen itzulketa partzialak egin ditu urtarilean. Kirol Patronatuak hainbat datu eman ditu, eta azaldu du koronabirusak eragina izan duela patronatuko zerbitzuen erabiltzaileengan Gipuzkoa osoan. Elgoibarren, zehazki, %35,85 jaitsi da Kirol Patronatuko abonatuaren kopurua 2020ko datuekin alderatuta; 3.860tik 2.473ra. Ikastaroetan ere jende gutxiago dabil. Lazko urtarilean 840 lagun zeuden ikastaroetan izena emanda, eta orain, 208 lagun ari dira martxan jarraitzen duten ikastaroetan. Aforoen eta segurtasun neurrien ondorioz, igeriketako ikastaroak ezin izan dituzte oraindik martxan jarri. Beste ikastaro batzuetan musukoa derrigor erabili behar da, eta arduradunek uste dute horrek eta beldurrak atzera bota dituela erabiltzaileak. Spinning ikastaroetan esaterako iaz 113 lagun zeuden izena emanda, eta aurten, bost. Alde positiboak 60+ programan aurkitu dute, iazko 128 erabiltzaileetatik 113k jarraitzen dutelako.

Oraindik eskuragarri daude Puro Relajok domekan emango duen kontzerturako sarrerak

Bi emanaldi eskainiko ditu Puro Relajo mariatxi taldeak Herriko Antzokian domekan, 12:30ean bata eta 17:00etan, bestea. Saio bakoitzeko aforoa 185 lagunekoa izango da, eta oraindik badago sarrerak erosteko aukera. Nahi duenak Kutxabank bidez edo lehiatilan bertan erosi ditzake, 10 euroan.

Mexikoko erritmoak eta euskal kanta klasikoak eskainiko dituzte. Nagusiki gaztelaniaz abesten duten arren, euskaraz ere abesten dituzte euskal kantak, tartean Xabier Lete eta Mikel Laboaren abestiak.

Landa-bideen inguruko ordenantzak eztabaida sortu du Mendaron

A buztutik indarrean da Mendaroko Udalak landa-bideen "erabilera berezia" arautzeko ekainean aurkeztu zuten ordenantza, eta ari da zeresana ematen. Alkateak orduan esan zuen landa-bideen zoladurek okerrera egin zutela eta pinu ateratzeekin lotu zuen. Ordenantza berria jasota dago bideak erabiltzeko baimena eskatu beharko dela 20 tona baino gehiagoko pisu gordina duten ibilgailuak erabili behar direnean, salbu eta joan-etorri horiek nekazaritza eta abeltzaintza ustiatuekin zerikusi zuzena duten gauzeta-rako erabiltzen diren, esaterako ganaduarentzako jana garraiatzeko. Baimena eskatzeaz batera, fidantza ere ordaindu beharko dute lur-jabeek, egurra ateratzean eragiten diren kalteak konponduaraziko dituztela bermatzeko. Fidantzaren zenbatekoa egin beharreko distantziaren eta mendi-sailaren hektareen arabera izango da [gutxienez 1.500 eurokoa, eta gehienez, 3.500 eurokoa]. Era berean, beldar-ibilgailuek, katedunek, ibilgailu arrastatzaileek, 26 tona baino gehiagokoek, atoidun kamioiek eta trailerrek debekatuta dute landa-bideetan ibiltzea, baimen berezirik ezean. Arauak hausten dituztenentzako isunak ere zehaztuta daude ordenantzan: 150 eurotik 3.000 eurora artekoak. Ordenantza hori aurkezteko eta hari buruz eztaibatzeke hainbat batzar egin dituzte udal agintariek baserritarrekin, ez baitute denek begi onez hartu. Eta batzar horietako batean eukalipto landaketen inguruko kezka ere agertu zuten zenbaitek.

Ezer egin ez izana egotzi dio PSE-EEk alkateari

Horren harira, Mari Jose Telleria PSE-EEko zinegotziak kargu hartu dio Iñaki Arregi alkateari eta landa-ingurunean sortutako problematikaren aurrean ezer egin ez izana egotzi dio. Telleriak dio landa-ingurunearekin lotutako gaiak "modu monografikoan" aztertzeke bilera antolatzeke eskatu ziola alka-

teari eta beste eredu batzuen erreferentziak ere eskaini zizkio-tela "oposizioko alderdiek", baina hilabete joan dela erantzunik gabe. "EAJk ezin du oposizioaren ekimenei jaramonik egin gabe jardun, are gutxiago gehiengo nahikoa ez duenean. Eta ezin du neurriak hartzeari uko egin eta arazoak berez konpon daitezen itxaron edo soluzioa besteek noiz eman zain geratu". "Errealitatea konplexua" dela dio eta horregatik eskatu zuela bileran Udaleko teknikariek eta Debemenekoek parte hartzea. Eukaliptoaren harira Telleriak esan du Udalak baduela ahalmena basoen aniztasuna sustatzeko estrategiak sortzeko, "adibidez espezie autoktonoak landatzeko dirulaguntzak argitaratuta, lurren jabeek erabakiak hartzen lagunduko dien aholkularitza bereiziko zerbitzuak eskainita...". Hala ere, Telleriak dio aukera horien aurrean alkateak 'ezin dugu debekatu' erantzun ohi duela beti. "Ez gara hori eskatzen ari, lana egin dezazun baizik. Jokoa Mendaroko landa-ingurunearen etorkizuna dago", ohartarazi dio.

EAJren erantzuna PSE-EEko zinegotziari

EAJk gezurtatu egin du Mari Jose Telleriak esandakoa hala denik eta "alderdikeria laga" eta "herriaren alde jarduteko" eskatu dio. Era berean esan du Udalak "etenik gabe" diharduela lanean landa ingurune bideen mantentze lanak egiten eta eukalipto landaketen inguruko aferari erantzuna emateko. Ohar berean dio 2020an baserritarrekin egindako bileretan hainbat konpromiso hartu zituztela, tartean "herritarrei eta baserritarrei informazioa helaraztea eta arbola landaketen inguruan eskumena duten erakundeekin lankidetzan jardutea", esaterako, Al-ndiariarekin. "Gezurra da hilabete daramatenik oposizioko alderdiek bilera baten zain, joan zen otsailaren 10ean erregistratu zuelako PSE-EEk eskaera, eta egunean bertan gehitu zelako otsailaren 22an egingo den Batzorderako gai-zerrendan".



Txankakuaren Gabonetako zozketan saritutakoek jaso dute saria

Txankakuak hamar sari zozkatu zituen Gabonetan, 1.800 euro guztira, baina 100 euroko sari baten jabea ez da agertu. Beste bi sari, berriz, saritutako ordezkoren jabeek eraman dituzte. Leire Sanchezentzat eta Rosa Arruabarrenarentzat izan dira sari nagusiak, 500 euroko bi sari. Beste zazpi lagunek 100 euroko sariak jaso dituzte. Honako hauek izan dira gainerako sarituek: Arrate Iriondo, Ane Iñiguez, Maria Luisa Arrizabalaga, Ruth Gurrutxaga, Ana Isabel Alvarez, Maider Iriondo eta Ane Sota.



Emakume zientzialariak, argitara

Eskualdeko gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko eta bereziki nesken parte-hartzea bultzatzeko, hainbat ekimen antolatutako zituen joan zen astean Debegesak, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira. Era berean, egun horri ikusgarritasuna emateko, emakume zientzialarien izenak eta haien lanak erakusleihatara eramateko ekimena sustatu zuen Elgoibarko Udalak, Elhuyarrekoekin eta Egur Arte tailerrekoekin batera.

- AINARA ARGOTIA -

Zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika alorretan lan egiten duten emakumeak bistarazteko ahaleginetan dihardu Debegesa garapen agentziak azkeneko urteetan, gauza jakina delako haien lanari balioa aitortzea beharrezkoa dela, belaunaldi berriek erreferenteak izateko eta estereotipoak hausteko. Eginahal horretan, eta *Etorkizuna eraikiz* programaren barruan, STEAM arloko gaien eta lanbideen inguruan gazteek duten pertzepzioa aztertu zuen 2019an, Elhuyarrekin lankidetzan. Ikasleek zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika alorreko gaietara zuten interesaz galdetu zieten, bai eta nola ikusten zuten beren lanbide-proiektzioa ere. Debarreneko 14 eta 18 urte bitarteko 548 gazteek erantzun zuten galdetegiak (%47 emakumeak eta %49 gizonak), eta azterketatik ondorioztatu zuten genero-estereotipo tradizionalak gazteen interesetan eragina dutela. Datutan, hemen: neskei gehien interesatzen zaizkien gaien artean daude gai sozialak (%51,37), kirolak (%46,67), eta medikuntza eta osasuna (%46,66). Mutilen kasuan, berriz, kirolen inguruko interesa da nagusi (%78,68), eta zientzia eta teknologiaren ingurukoa gero (%56,25).

Azterketa horretako ondorio nagusiei heldu zieten joan zen egunean egin zuten Debarreneko emakume zientzialari eta teknologo mahai-inguruan. Lorea Arakistainek gidatu zuen saioa, PuntuEUS fundazioko marketin eta komunikazio arduradunak, eta gure eskualdeko lau zientzialarik parte hartu zuten: Amaya Igartua kimikari eta Teknikerreko ikertzaileak, Ane Rubio biokimikariak, Maialen Arrieta fisikariak [gaur egun bioinformatikaria anetan ari da Soborneko Unibertsitatean Huntington gai-

xotasun degeneratiboa ikertzen] eta Natividad Garcia Ingeiniari elektronikoa eta Nabab Consulting enpresaren sortzaile eta zuzendari exekutiboa. Rolak eraitsi beharraz jardun ziren luze eta zabal, eta nabarmendu zuten gaur egun neskek zientziaren bidetik aldentzen dituzten uste mugatzaile gehienak familia-ingurunean sortzen direla. "Eredu heteropatriarkalean bizi gara, eta jakina, neska batek umetatik entzun badu zientzietarako ez duela balio, oso zaila izango da aurreiritzi horren kontra egitea", zehaztu zuen horren harira Maialen Arrietak. Erreferenteak eta dauden ikasketak eta lanbide aukera guztiak aurkeztearen garrantzia azpimarratu zuten, eta horren adibidetzat STEAM-Sare ekimena aipatu zuten. Innobasque erakundeak bultzatutako ekimena da, eta ikerketa eta teknologietan aurreratuak dauden enpresak institutuekin jartzen ditu harremanetan. Gazteei lanbide ezberdinak gerturatzeko jarduerak proposatzen dituzte ekimen horren barruan. Teknologiarik duen balioa emateko estrategiak diseinatu beharrez ere jardun ziren mahai-inguruan. "Interes askoz txikiagoko gaiak sartzen dizkigute, insistentziaren teknika erabilia edota gauzak modu dibertigarrian aurkeztuta. Geuk ere gauzak modu dibertigarriagoan aurkeztuta ezagutarazi ahalgo gure teknologiarik duen balioa. Gure gazteek inguruko enpresetan zer egiten duten ez dakite gaur-eta", nabarmendu zuen horren harira Garcia.

Eta hain justu ere hori bilatzen zuten Debegesak ostegun goizterako sortu zuten beste ekimenak. *Zientziaz gozatu, dibertitu eta ikasi* izenburupean topaketa birtualean elkartu ziren eskualdeko hainbat ikastetxe. Maitane Alonso ikertzaile eta asmatzaile gazteak (Sodupe, 2001) parte hartu zuen ekimenean, Valpat Youtu-



beko kanal ospetsuko protagonistak. Elikagaiak kontserbatzeko proiektu baten asmatzailea da Alonso eta 20 urte besterik izan ez arren, hainbat sari eskuratu ditu, besteak beste honakoak: *Premio Hipatía. Talento joven en la ciencia*; *Premio Mujer Inspira-*

dora Revelación 2019; IntelHSEF Nazioarteko lehiaketa edo MIT Saria (sari horrengatik asteroide batek bere izena du gaur). Haren saioa Youtuben esegi dute, honako loturan: <https://www.youtube.com/watch?v=4lsleyKpGFg>.

AMAYA IGARTUA (Eibar)

KIMIKARIA



“Emakumeek ez dezatela pentsatu muga gehiago izango dituztenik emakume izateagatik. Mugak geuk jartzen dizkiogu sarri geure buruari”

MAIALEN ARRIETA (Eibar)

FISIKARIA



“Askok ez dakite zer ikasi, uste dutelako hasitako horretan jardun beharko direla 50 urtean, baina lasai, ez da hil ala biziko erabakia. Alda daiteke”

NATIVIDAD GARCIA (Eibar)

INGENIARI INFORMATIKOA




“Horretarako balio ez dugula uste dugun horretan bukatzen dugu txarrak izaten, txarrak garela sinesten dugulako azkenerako”

Emakume zientzialariek egindako ekarpenaren erakusleihu bihurtu dira Elgoibarko saltokietako eskaparateak

Emakumeek eta neskek zientzian sarbide eta parte-hartze “erabatekoa eta berdintasunezkoa” izatea lortzeko, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna izendatu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak otsailaren 11, 2016. urtean. Eta asmo horrekin sortu zuen Elhuyarrek *Bizilabe* proiektua, “gazteei zientzia-bizipe-nak eskaintzeko eta komunitate osoa inplikatzeko”. Bizilabek urte osoan lan egiten du neskek zientzia eta teknologia gaietan parte hartu dezaten, eta horretarako, emakume zientzialarien lana balioan jarri eta bistaritzen du, erreferenteak sortzeko. Aurtun ere hainbat jarduera antolatu dituzte Bizibailetik horren harira, eta horietako batekin bat egin zuten



joan zen astean Elgoibarko Udalak eta Egur Arte tailerrak, *Otsailaren 11 erakusleihoko* izenekoarekin. Ekimen horretan saltokiak emakume zientzialarien erretratuekin janztera deitu zituzten herriko merkataria, Bilbon, Soraluzen, Ermuan, Tolosan eta Villabonan egin zuten moduan. Ekimenean parte hartu zuten saltoki guztien mapa ere osatu zuten eta Udalaren webgunean eta *Bizilabe.elhuyar.eus* webgunean jarri dute ikusgai. Diptikoak ere sortu zituzten, bestalde, saltokietan uzteko.



▶ ANE RUBIO BIOKIMIKARIA

“Gaixotasunak nola eta zergatik sortzen diren jakin nahi izan dut beti”

Biokimika eta Biologia molekularreko gradua egin zuen Ane Rubiok EHU (Mendaro, 1996). Orain, Madrilen dabil, CNIO, Espainiako Ikerketa Onkologikoen Zentro Nazionalan, master amaierako lana eta praktikak egiten. Joan zen egunean, Debegesa garapen agentziak antolatutako ‘Emakume zientzialari eta teknologoak’ mahai-inguruan parte hartu zuen, gure eskualdeko beste hiru emakume zientzialarirekin batera: Amaya Igartua kimikaria, Maialen Arrieta fisikaria eta astrofisikan doktorea eta Natividad Garcia ingeniari informatikoa. Lorea Arakistainek, PuntuEUS fundazioko marketin eta komunikazio arduradunak, dinamizatu zuen saioa eta youtuben dago ikusgai: <https://youtu.be/ywm0zHDJEPg>

- AINARA ARGOITIA -

◆ Noiz erabaki zenuen biokimikaria izan nahi zenuela?

Ba egia esan, azkeneko momentuan, Batxilergoko bigarren ikasturtearen azkenaldera. Beti gustatu izan zaizkit gaixotasunen inguruko kontuak, zerk sortzen

dituen eta halakoak, baina orientatzailearekin izaten diren ohiko bilera horietako bat izan nuen arte, ez nekien Biokimika karrera bazenik ere.

◆ **Debegesak, Elhuyarrek lankidetzan, azterketa bat egin du STEAM ar-**

loko gaien eta lanbideen inguruko gazteen pertzepzioa zein den aztertzeko eta ondorio nagusiak dio neskek gai askotan dutela interes handia, eta bereziki gai sozialetan, eta mutilak, aldiz, kirolean eta zientzia eta teknologian



zentratzen direla. Zer gauzatan izan duzu zuk interesa umetatik?

Umetan ordu asko sartutakoa naiz musika eskolan. Txistua ikasi nuen, baina balletean ere ibili nintzen. Eta kirola ere dezente egin nuen, Batxilergora arte. Gaur naizenarekin lotuago esan dezaket gaixotasunen inguruan interes handia izan dudala beti. Nola eta zergatik sortzen diren jakin nahi izan dut nik beti; zer gertatzen den maila molekularrean gaitz bat edo beste garatu ahal izateko. Eta minbiziak eman dit beti atentzioa. Zelula bat kontrolik gabe zatitzen hasteak eragiten du minbiziak, eta, deigarria egin zait beti hori. Momentuan, minbizi mota bat ari naiz ikertzen, eta gustura ari naiz.

♦ Biokimikaria zara ikasketaz. Kontaguzu zein bide jarraitu duzun.

Bilbon egin nituen ikasketak. Lagarren ikasturtean, lehen lauhilekoan, Pragara joan nintzen Erasmusekin. Sei hilabete egin nituen han, otsailetik irailera, eta sekulako esperientzia izan zen, gomendagarria. Gero, Bilbora itzuli nintzen karrera bukatu eta gradu amaierako lana lana (GRAL) egitera. Achucarro zentroan egin nuen, Zientziarako Euskal Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak neurozientzien ikerketarako sortu zuen euskal ikerketa zentroan. Ikerkuntza zer zen ikusteko aukera eman zidan horrek. Bukatu nuenean ez neukan garbi zer egin. Gelakide batzuek masterra hasi zuten eta nik gradua amaitu ondorenean eskaintzen duten beka batzuetarako eman nuen izena. Beka eskuratu bitarte horretan, baina, Donostian jardun nintzen Biodonostia osasun ikerketa institutuan, laborategiko lanean. Abendutik martxora jardun nintzen han, eta gero laga egin nuen, atzerrira joateko beste beka bat eman zidatelako. Florentziara joan nintzen harekin, hango laborategi batean lan egitera. Oso esperientzia aberasgarria izan zen. Bost hilabeteko egonaldia izan zen, eta italiara ikasi nuen. Florentzian bueltan erabaki nuen, ikerkuntza saiatu nahi banuen, masterra egiteko ordua iritsi zitzaidala eta Madrilerara joan nintzen. Hemen nago orain, Biologia sa-

nitarioko masterra egiten Madrilgo Unibertsitate Konplutensean.

♦ Zeri buruzkoa izan zen zure graduondoko lana?

Labur esanda, Alzheimerren ingurukoa. Alzheimerren garapenean parte hartzen duen proteina baten karakterizazioan aritu nintzen.

♦ Zertan ari zara orain Madrilen?

Melanomaren inguruan aztertzen duen laborategi batean ari naiz. Melanoma larruzaleko minbizi mota bat da, eta melanozito izeneko zelulak gaiztotzen direnean agertzen da. Eta gu aztertzen ari garena da zein prozesu molekularrek eramatan duten melanoma metastasia sortzera.

“Etxekoen arduraren gain hartzeak profesionalki hazten jarraitzea zailtzen die emakumei”

♦ ‘Ikerkuntza munduan saiatu nahi badut, masterra egin behar du’ esan zenion zeure buruari. Argi zenuen, beraz, ikerlari izan nahi zenuela?

Ez, ez neukan argi. Eta uste dut sekula ez dudala argi izango, gainera, ni halakoa naizelako, zalantzatia. Baina egia da mundu horrek beti sortu didala jakin-min halako bat, eta beraz, saiatzea erabaki nuen. Ez zait gustatzen nire bidea topatu dudala esatea; ateak zabalik laga zalea naiz, handik edo hemendik jotzeko aukera izateko beti. Bizitzak buelta asko ematen ditu, eta hasi zintezke bide batetik eta amaitu sekula pentsatuko ez zenuena egiten. Egia da gustatu zaidala ikerkuntzaren mundu hau eta betetzen nauela, baina egia da, baita ere, oso mundu sakrifkatua eta prekarioa dela. Oso gutxi hitz egin genuen honen inguruan aurreko solasaldian, baina errealitatea hori da. Enpresa munduko ikertzaile bi eta uniber-

tsitateari lotuago gauden beste bi elkartu ginen saiorako eta diruaren inguruan gehiago galdetu zion gai-jartzaileek enpresa mundukoei, baina esan beharra daukat ikerkuntzan oso gutxi inbertitzen dela. Ikerkuntza sekula ez dakite lortuko duten eskuartean dituzten proiektuekin jarraitzeko dirulaguntzak.

♦ Zientziak ari garela bata zuridun gizona izateko etorriko zaio askori burura.

Bai, tamalez hala da oraindik ere, baina uste okerra da. Ikerkuntza, emakume gehiago ari dira gizonak baino. Beste kontu bat da, gero, goi-karguetan zenbat emakume topa ditzakegun zientzia alorrean; gutxi, zientziaren bidea hasten duten guztiak aintzat hartzen baditugu.

♦ Ana Galarraga zientzia-komunikatzaileak zioen normalean neskek koska bat goragotik hasten dituztela STEAM ikasketak unibertsitatean. Gehiago direla kopuruan eta nota hobek ateratzen dituztela, baina gero doktoretzara iristean berdindu egiten direla kopuruan emakumeak eta gizonak, eta hortik aurrera, emakumeak gutxitzen hasten direla. Zein uste duzu dela arrazoiak?

Bai, hala da. Zientzia ez da salbuespena. Mailetan gora egin ahala, gizonen nagusitasuna handitzen doa. Arrazoen inguruan pentsatzen jardun nintzen aurrekoan, zifrek argi erakusten dutelako Anak dioten hori. Arrazoiak asko izan daitezke. Izan daiteke emakume erreferenteen falta, izan daiteke emakumeek geure buruarekiko segurtasun falta handiagoa dugula aginte postuetarako, izan daiteke anbizio faltagatik, eta izan daiteke, baita ere, gizonen arteko korporatibismoagatik ere, gizonak gizonak aukeratzen dituztelako normalean. Eta gero kontziliazioaren kontua ere hor dago. Nik ikusten dudana da aita den zientzialariak amaren beste batek baino denbora gehiago duela lanari eta lanarekin lotutako arduri dedikatzen. Zaintzaren arduraren, oraindik orain, emakumeena da neurri handi batean, eta etxekoen ar-



dura hori beren gain hartzeak profesio-nalki hazten jarraitzea zailtzen die emakume askori.

♦ **Zure ibilbidean zer topatu duzu zuk?**

Batxilergotik lau lagun joan ginen gu unibertsitatera, Biokimika eta Bioteknologia ikastera: hiru neska eta mutil bat. Gure gelan, ikasleen hiru laurden inguru izango ginen neskak. Eta beharbada gehiago ere bai. Oro har esango nuke medikuntzarekin lotura duten ikasketetan neskak gehiago direla mutilak baino. Beharbada beste zientzietan, matematika, fisika eta halakoetan bestera izango da, baina medikuntzan, erizaintzan, biologian... eta halakoetan behintzat emakume gehiago gara. Egon naizen lau laborategietan ere argi ikusi dut hori: gizonetzkoak izan ditut beti arduradun, baina laborategian emakumeak izan gara gehiago beti. Orain, hamar laguneko taldea gara, eta hiru ez beste guztiak emakumeak gara.

♦ **Medikuntzari, zaintzari, lotuago dauden ikasketetan emakume gehiago beraz. Jarraitzen du erreproduzitzen estereotipoak hortaz**

Bai. Hobera egin den arren, badago oraindik zer hobeto.

♦ **'Ni ez naiz emakumeen artean zientzietako ikasketak sustatzearen aldekoa, hori emakumeak lehoietara bidaltzea delako. Beti bikoitza demonstratu beharko dute, inora ez iristeko', zioen Ana Galarragak. Zer duzu esateko?**

Ni nagoen mailaraino iristeko ez dut uste mutil batek baino gehiago egin beharra izan dudarik, baina zalantzarik ez daukat gora egiteko bidean emakume batek gizon batek baino traba edo zailtasun gehiago topatuko dituela. Eta gero lehen esan dizunetik ere badago. Laborategian lankide emakumezko gehiago dauzkagu, baina iristen da laneko elkarrietzeta batera joateko eguna eta hor jarri behar zara gizonetzko baten aurrean eta halakotan badago zerbaitez zarena baino txikiago sentiarazten zaituena. Ez dakit zein den arrazoia, baina esango nuke gure buruak baloratzea gehiago kostatzen

zaigula emakumeoi. Beste emakumeen lorpenak baloratzen ditugu, baina geureak... Begira, Debegesak antolatutako solasaldiarekin antzeko zerbaitez gertatu zitzaidan. Deitu zidatenean hizlarietako bat izateko proposatzen zalantza egin nuen. Iruditzen zitzaidan nik ez nekala ezer kontatzeko, baina pisukideekin hitz egin ostean erabaki nuen baietza ematea, beste batzuei bidea zabaltzeko balioko dielakoan.

♦ **Zergatik uste duzu direla beharrezko azkeneko honen moduko saiokak?**

Emakumeen presentzia indartzeko eta emakume zientzialariak elkar ezagutzeko; aliantzak sortzeko. Emakumeen ahotsa entzunarazteko aukera denak baliatu behar direla iruditzen zait. Gauza bat argi dago hemen: zenbat eta buru ezberdin gehiago jarri martxan, orduan eta aberatsagoa izango da emaitza.

“Gizonezkoak izan ditut arduradun beti, baina laborategian emakumeak gehiago izan gara”

♦ **Genero ikuspuntua lantzeko aukera handiagoa egongo delako behar bada?**

Bai, hori da. Gauza jakina da biologikoki ezberdinak garela emakumeak eta gizonak, eta medikuntzan, adibidez, askotan ez zaiola arreta berezirik eskaini genero diferentziari eta horren ondorioz emakumezkoek gizonetzkoek baino arreta kaskarragoa jasotzen dutela batzuetan.

♦ **Erreferenteak aurkezteari bezain garrantzitsua iritzi diozue zientzietako aukerak aurkezteari.**

Horren harira Maialen Arrietak aipatu zuen kontu bat asko gustatu zitzaidan. Esan zuen Frantzian ume-umetatik enpresetara eramaten dituztela umeak

lanbide ezberdinak ezagutzera. Probatu arte sekula ez dakizu gustatuko zaizun ala ez, baina gutxienez zeintzuk aukera dauden ikustea oso garrantzitsua dela iruditzen zait. Eta horretan zenbat eta aurretik hasi hobeto. Unibertsitate garaian izan nuen irakasle bat asteartero ekartzen ziguna izen handiko ikertzaileen bat gelara. Gauza ederra zen. Tutoretza-orduak dauden bezala lanbide ezberdinak ezagutzeko orduak egon beharko lirateke eskoletan.

♦ **Debegesa eta Elhuyarren ikerketaren beste ondorioetako batek dio STEAM profesionalak “pertsona argiak, langileak, jakintsuak eta jakin-guratsuak” direla uste dutela gazteek. Ikasle onak deskribatzeko ohiko adjektiboak dira. Zer duzu esateko?**

Ez nator bat horrekin, nahiz askotan entzun dudan neuk ere hori. Zenbat jende ote dagoen bere burua gutxiesten duena matematikan sekula ez delako ona izan. Niretzat, baina, askoz zailagoa da nobela bat idaztea. Nik ez daukat horretarako gaitasunik. Kontua da gustuko dugun horretan errazago aritzen garela eta errazago ari garenez gehiago saiatzen garela. Lanik egin gabe ez dago ona izaterik ezertan.

♦ **'Genero-estereotipoek indarra dute baita etorkizuneko lanbideak hautatzerakoan ere', dio Debegesaren ikerketak. Ez da izango maskulinitzat jo izan diren gaiak/lanbideak serioagoak iruditzen zaizkigula?**

Izan daiteke, bai.

♦ **Nora iritsi nahiko zenuke?**

Ikertzen jarraitu nahiko nuke, baina ez dago erraza. Mundu hau oso lehiakorra da hasiera-hasieratik. Ikerkuntzan hasteko doktorego tesia egin beharra dago normalean, eta hor joaten zaizkigu hiru-lau urte. Ondoren, eta jarraitu nahi izanez gero, posdoktoretza egitea da ohikoena eta horretarako beste beka bat behar da. Esango nuke ikerkuntzan lehia handia dagoela, eta aldi berean, ezegonkortasun handia ere bai. Doktoretza egitea badaukat buruan, baina ez ditut beste ate batzuk itxen.



1967

Aste honetako argazkia Margarita Kastrillejoren eskutik iritsi da BARRENEko erredakziora. 1967-68 ikasturtean ateratako argazkia da, garai hartako ikastolan. *Escuela Vasca* izenez ageri da dokumentuan. Ume pila bat biltzen ziren orduan geletan, eta erretratu honetan ageri dira gela hartako ikasle batzuk, baina erdia edo gehiago falta dira. Agian erretratu hau ikusita, falta diren gelakideen argazkia duen norbait ere animatuko da erretratu hori herritarrekin partekatzen. Gogora ditzagun zeintzuk diren txintxo-txintxo bakoitza bere ikasmahaian eserita dauden ikasle horiek.

Atzeko ilaran, ezkerretik eskumara: Jose Alberto Gorosabel, Sabino Arakistain, Sabin Osoro eta Jose Mari Armendia (†). **Ondorengo ilaran:** Jon Iñaki Jaio, Lorea Sasiain, Mari Carmen Arozena, Nekane Etxeberria, Jone Garcia. **Bigarren ilaran:** Alfonso Garai, Alfonso Eugi, Jose Ramon Ortuoste, Margarita Kastrillejo, Arrate Argarate. **Aurreko ilaran:** Iñaki Inxausti (†), Angel Mari Arregi (†), Valentin Barrenetxea, Gemma Jaio eta Miren Itziar Arrieta.

Oharra: Akatsa egin genuen joan zen asteko alean eta erretratua moztuta eman genuen argitarara. Horregatik argitaratu dugu berriro aste honetan.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:
barren@elgoibarkoizarra.eus
 Barreneko bulegora ekarri:
 Alta Agirre Kulturegunea, 3, 3. ezk.





“Esateko beharra edukitzen dut, eta esan behar horrek luze idaztera eramaten nau”



► **EDU IRIONDO** MUSIKARIA

‘Satorra eta gu’ diskoa kaleratu berri du Edu Iriondok (Elgoibar, 1954), bere bigarren lana. Orain dela sei bat urte kaleratu zuen estreinakoa, eta ordutik gaur egunera bitartean prestatu ditu bigarren lan honetarako abestiak. Denetariko gaiak jorratu ditu bigarren lan honetan ere, guztiak euskaraz. Ofizioz irakaslea izan da, baina beste hainbat saltsatan ere ibilia da. Besteak beste, euskararen aldeko mugimenduetako kide izan da, eta abesterako orduan ere euskararen aldeko hautua egin du. 30 urtetik gora dira Mungian bizi dela, baina ez du bere sorterriarekin harremanik galdu: senideak bisitatzeraz etortzen da asteburuetan, eta sanbartolomeak eta Eguberriak ere herrian pasatzen ditu. Egonaldi horiek lagunekin egoteko ere aprobetxatzen ditu, eta hain zuzen ere, lagun horietako batzuekin elkartu da bigarren lan honetan ere diskoa grabatzeko, besteak beste, bere anaia Albertorekin eta Juan Carlos Martinekin. Nahi duenak eduiriondo54@gmail.com helbidean eskatu dezake diskoa.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ ‘Satorra eta gu’ diskoa kaleratu berri duzu, zure bigarren lana, hain zuzen ere.

Bai, hala da. Hamaika kantuz osatu dut diskoa, fabula batean oinarrituta. Ez zait gustatzen besteekin kritikoa izatea, uste dut geure buruarekin izan behar dugula kritiko eta ez besteekiko. Fabulak geure bizioak eta lotsak agerian jartzeko aukera ematen du, errua besteengan bila-

tzen ibili gabe. Satorraren fabula gustatu zitzaidan eta hortik etorri da diskoaren izena. Herri batean bazegoen sekulako triskantzak egiten zituen sator bat, eta herritar guztiak erabaki zuten sator harekin zerbaitekin egin behar zela. Egun batean satorra lurrazalera irteten zen, eta kaiola batean sartu zen bere kabuz. Herritarren artean batzorde bat osatu zuten, satorraren zer egin erabakitzeko, eta hasi ziren

aukera desberdinak aztertzen: urkatu, sutan erre... Ez ziren ados jartzen, eta azkenean, jakintsuen beste batzorde bat osatu zuten, haiek erabaki zuzena hartuko zutelakoan. Azkenean haiek proposatu zuten satorra bizirik lurperatzea, eta denak ados egon ziren. Fabula oso polita iruditzen zait, eta hortik etorri da izena. Baina denetariko abestiak bildu ditut diskoan: abesti bat da identitate bikoitzari bu-



Pandemiaren eraginez ezin izan ziren musikari guztiak batu argazkia ateratzeko.

“70eko urteetan denbora asko eskaini nion musikari eta ibili nintzen oholtzan kontzertuak ematen”

baina tarteka musika edota informatika eskolak ere eman izan ditut. Tokatzen zena. Eta horrez gain, euskalgintzako mugimenduetan ere ibili izan naiz militante, eta salta politikoko sindikaletan ere bai. Baina 70eko garai hartan denbora asko eskaini nion musikari, eta ibili nintzen oholtzan kontzertuak ematen. Jende ezagunarekin jo nuen, beraien *telonero*. Orduan ohikoa izaten zen kontzertuetan batek baino gehiagok jotzea, eta ni aritu izan nintzen haien aurretik. Batzuk aipatzearen: Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lete, Gontzal Mendibil, Oskorri... Bizkai aldean ibili nintzen, bereziki. Kantautore moduan edo ibiltzen nintzen ni, bakarka. Nire kanta propioak abesten nituen, hori beti gustatu izan zait, letrak idatzi eta musika egitea. Ruper Ordorikak ere duela gutxi deitu zidan nik abesten nuen kanta bati buruz galdezka, eta ni ia gogoratu ere ez nintzen egiten kanta harekin! Ez pentsa, baina, profesionala nintzenik, *filibustero* moduan ibiltzen nintzen. Militantziarako beste modu bat zen.

♦ **Eta nola bururatu zitzaizun diskoa grabatzea?**

Orain dela sei bat urte konturatu nintzen abesti asko neuzkala idatzita, eta etxerako moduan grabatuta. Alberto anaiarekin jarri nintzen lanean, beno, berari eman nion lana! Anaia sekulako musikaria da. Armonia ere ikasi zuen hark, eta klarinetea eta teklatura bikain jotzen ditu! Anbizio txikiko musikaria dela esaten diot, baina kalitate demasa dauka. Bera eta Inazio Bereziartua musika eskolan urteetan gitarra irakaslea izan den Juan Carlos Martin jarri nituen lanean eta beraiek egin zizkidaten abestietan konponketa guztiak. *Hamabi historia musikatu* jarri genion izena estreinako diskoari, eta Mungia-ko estudio batean grabatu genuen. Koroak egiteko ere hainbat lagun fitxatu nituen, eta lagun askoren laguntzaz sortu

nuen diskoa. Liburu batekin batera kale-ratu genuen, abestien letrak eta abestiei buruzko hausnarketak idatzi nituen. Produktio lan guztia neuk ordaindu nuen, baina hauxe da nire zaletasuna; musika. Dena neuk ordaindu behar izan dut diskoak ateratzeko; ez ninduen inork fitxatu, baina beste gauza batzuetan gastatzen ez dudanez, aurreztutakoa musikari eskaintzen diot, azken batean, hau delako niri gustatzen zaidana. Mungian eman genuen kontzertu bat diskoa aurkezteko, eta Elgoibarren ere jotekoak ginen, baina azkenean, ez ginen iritsi. Liburugintzan ere ibilia naiz ni. Euskara ikasteko testuliburu batzuk ere egin genituen eta *cassete* batzuk ere grabatu genuen testuei laguntzeko. Elgoibarko musikariekin osatu genuen lan hau; musika eskolako musikariekin.

♦ **Bigarren diskoa ere lagunekin grabatu duzu. Nortzuk izan dituzu bidelagun oraingoan?**

Anaia Alberto fitxatu dut oraingoan ere, Juan Carlos Martin ere bai, eta oso ondo abesten duten beste hainbat kantari koroetarako. Koroari garrantzi handia eman diegu oraingoan. Grabazioa Bilboko estudio batean egin dugu, ahotsa batetik, baxuak bestetik, gitarra... gaur egun dena aparte grabatzen da. Perkusioa estudioan bertan sartu dute, digitalki. Fenomeno geratzen da, eta gaur egun horrela egiten dute askok. Zuzenekoetarako baterijolea beharrezkoa da, jakina, baina estudioan ez. Abesti batzuetan banjoa ondo geratuko zela iruditu zitzaidan eta hori neuk grabatu dut. Ez naiz beste mundukoa banjoarekin ere, baina estudioan dena disimulatzen da. Lagun batek komentatu zidan behin beste lagun batek kanta batean “oilarraren” bat egin zuela, eta berak erantzun ziola “oilarraren” bat egin bazuen, nahita egindakoa izango zela, gaur egun dena zuzentzen dutelako

ruzko hausnarketa, beste bati *Tunturruberde* jarri diot izena, betiko umeen kantari erreferentzia egiten dio abestiak, baina kasu honetan nerabeei zuzendutako kanta da, ez daitezen lokartu. Salbea ere sartu dut, Elgoibarko salbearen gainean eginiko nire salbe propioa. Mari pertsonaia mitologikoari buruzko letra jarri diot salbeari. Heriotzari buruz ere hitz egin dut abesti batean; adin batera iristen zarenean heriotzari buruz idaztea ere oso beharrezkoa da. Kantak idazterako orduan etortzen zaizu horrelako ideien bat, eta gero forma eman behar zaio horri. Nik denbora dezente eskaintzen diot kantak idazteari, garrantzia ematen diot letzari, mezua ondo iristea garrantzitsua delako.

♦ **Noiztik diharduzu musikagintzan?**

Aspalditik nabil musikan, baina ni ez naiz musikaria, ni afizionatua baino ez naiz. Gitarra akustikoa, banjoa edo ukelelea jotzen ikasi dut, baina dena nire kabuz. Solfeoa ikasten hasi nintzen ume-tan, baina hura ere erdi ahaztuta daukat dagoeneko. Denetik egin dut nire bizitzan, eta egia da 70eko hamarkadan nahiko sartuta ibili nintzela musika munduan, baina gero beste gauza asko egin ditut. Ofizios institutuko irakaslea izan naiz, Hizkuntza eta Literaturako irakaslea,

Atzo goizekoa ez izan: Adinean nahiko aurreratua izan.

estudioan. Tira, den dena ere ez, egia da. Lan txukuna egin dugu eta ez diot inori meriturik kenduko. Entzun dutenek esan digute oso ondo geratu dela, eta pozik gaude emaitzarekin. 2019ko irailan sartu ginen estudioan, eta zorionez, alarma egoera ezarri zutenerako oinarriak eta tresna batzuk grabatuta geneuzkan. Etxealdian Internet bidez komunikatu nintzen batekin eta bestearekin abestiak orrazteko, eta baimena eman zutenean ekin genion berriz grabazioari, ahal genuen moduan. Bakarka joan behar izaten genuen, maskararekin, baina zailtasun horietara ere ohitu ginen. Momentu txarrak ere bizi izan nituen, izan ere, ahotsa grabatu behar zuen lagun min bat hil egin zen, eta izugarri kostatu zitzaidan egoera horri buelta ematea. Mugak itxi eta mugak zabaldu ibili diren tartean ere ez da erraza izan. Azkenean abenduan bukatu genuen grabazioa.

◆ Diskoa ekoizteaz gain, merkaturatzeaz ere zeu ari zara arduratzen?

Merkaturatu? Ideiarik ere ez daukat horri buruz, baina bai, neu ari naiz saltzen. *Badok*-ekoei bidaliko diet, baina hau ikasbidaiko polboroen kontua modukoa da; azkenean etxeakoak eta lagunak odolhusten ditugu. Aurreko diskoa ere bidali nuen irratietara, baina ez dakit inork jarri ote zuen! Entzun ere ez zuten egingo akaso. Orain, gainera, ez da nahikoa CDa bakarrik ateratzea! Nire lagun bati gertatu zitzaion anekdota bat kontatuko dizut: bere ikasle batzuek erosi zioten CD bana eta hurrengo egunean bueltan joan zitzaizkion ea non entzun zezaketen galdezka! Ordenagailu berriek CD irakurgailurik ere ez daukate! CDaz gain, pendrive-a, telefonoetarako mikrousb-a eta liburuxka bat ere atera ditugu eta dena 15 euroan jarri dut salgai. CDaren azaleko irudia neuk egin nuen, eta zazpi urteko ilo-



Pandemia hasi aurretik sartu ziren estudioan Juan Carlos Martin eta, Edu eta Alberto Iriondo anaiak.

bak lagundu zidan kit guztia kaxetan sartzzen. Batzuk esan didate merkeegia dela, baina nola jarriko dut ba garestiako lagunek eta gertukoek bakarrik erosten badidate? Nahikoa egiten dute! Gastatutakoaren parte bat behintzat berreskuratuko dut, eta ez da gutxi.

◆ Zeri buruz idaztea gustatzen zaizu?

Denetik idazten dut, unean unekoa. Lehenengo diskoa, adibidez, pertsonalagoa irten zitzaidan. Gai askotariko kantak egin nituen: Maitasunari buruzkoak, eskaldun etsiari buruzko blues bat, norberaren eboluzio pertsonal eta politikoari buruzko beste bat, alzheimerra daukan batek esango lukeenari buruzkoa... Bigarren disko honetan ere gai desberdinak landu ditut. Kanta oso luzeak atera zaizkit; lau minututik beherakoa kanta bakarra da, beste guztiak hortik gorakoak dira. Lagunek esaten didate kantuak mozteko, baina hala ere, luzatu egiten naiz! Esateko beharra edukitzen dut, eta esan behar horrek kantak luze idaztera eramaten nau. Denbora asko eskaintzen diot letrak idazteari. Batera egiten ditut letrak eta musika, eta istorio bakoitzak bere musika eskatzen dit. Poesia musikatua ere egin izan dut. Lauaxetaren poemaren bati musika jarri izan

diot. Ez nion ezer ulertzen Lauaxetari! Eskerrak poemaren aldamenean itzulpena zegoen! 75. urtean-edo hasi nintzen Lauaxetaren poemei musika jartzten, eta hiruzpalau musikatu nituen, baina horrekin ez nuen diskorik grabatu.

◆ Zuzenekoak emateko asmorik ba al daukazu?

Mungian egingo dugu seguruenik aurkezpen kontzerturen bat, baina ez ditugu kontzertu asko emango. Nik ez ditut diskoak zuzenekoarekin pentsatzen atera, ez da hori nire helburua. Jende asko inplikatu dut diskoan eta lagun kuadrilla hori guztia zuzenekoetarako mugitzea ez da erraza. Koroetan bakarrik lau lagun sartu ditut, musikariak, teknikoak... Ez da erraza. Orain, gainera, koronabirusarekin aretoetan dau den mugak kontuan hartuta ez nuke nahi kontzerturik eman. Uda aldera egoera hobetzen bada, agian orduan, antolatuko dugu zerbait. Asko jota kontzertu bat edo bi izango dira. Mungiakoa seguruenik bai, eta bestea Elgoibarren ematea ondo legoke, baina horretarako norbaitek eraman behar gaitu, eta Elgoibarren joteko talde asko dago. Guk ez daukagu katxe bat, eta guri horrelako emanaldiak garesti ateratzen zaizkigu. Musikari asko mugitu behar ditugu eta ez da erraza. Nik diskoa atera dut, behar hori sentitu dudalako, baina argi daukat hau afizioa dela bakarrik. Ni neu pozik nago egindakoarekin, disko polita atera zaigu, eta emaitza hor dago.

“Ez ditut diskoak atera zuzenekoetan pentsatzen; hori ez da nire helburua. Kontzertu bat edo bi egingo ditugu asko jota”



“Astebetean egunero mendi maratoni erdi bat egitea da nire hurrengo erronka”

▶ JUANAN MARTIN MENDI KORRIKALARIA

Pandemiaren erruz lehiaketarik gabe gelditu dira kirolari asko. Horixe da Juanan Martin (Elgoibar, 1986) mendi korrikalariaren kasua. Entrenatzen ibili arren, helbururik ez izateak zaildu egiten du dena, baina badaude motibazioari eusteko moduak. Martinek bere buruari jarritako erronketan aurkitu du sasoiari eutsi eta mendiaz gozatzeko bidea. Karakatera bost joan-etorri sei ordutan egiteko erronka gauzatu zuen Gabon aurreko astean. Orain, zazpi maratoni erdi egin nahi ditu astebetean, Karakate eta Irukurutzetan barrena.

- ASIER ORBEA -

◆ Nola iritsi zara mendi lasterketetara?

Futbolean ibili naiz betidanik. Atezaina izan naiz C.D. Elgoibarren erregional mailara arte, eta futbolean egin nituen azken lau urteak Oxforden egin nituen. Eskaintza bat jaso nuen eta han aritu nintzen. Ingalaterratik itzuli nintzenean, 2015. urtean, futbola uztea erabaki nuen. Ordura arte mendian sekula ibili gabea nintzen. Pentsa, Elgoibarkoa izanda Karakatera igo gabe nengoen barren! Sasoi hartan Iban Murraren argazki bat ikusi nuen, Karakateko igoerakoa. Irudian nabari zitzaion sufrimendu aurpegiak arretoa piztu zidan. ‘Dirudien bezain gogorra ote da igoera hori?’, galdetu nion neure buruari, eta neuk ere probatu behar nuela erabaki nuen. Lagun batekin igo nintzen estreinakoz Karakatera, ez bainuen bidea ezagutzen. Hori bai, soken bidetik egin genuen aurreneko igoera hura, aldapa handienak dauden bidetik. Sufritu nuen arren, gustatu zitzaidan eta harrezgero gustua hartu diot mendian ibiltze honi. Mendiko lasterketetan ere segituan hasi nintzen parte hartzen, eta hasi eta bat konturatu nintzen entrenamenduak handitu ahala emaitzek ere hobera egiten zutela. Sufritzen eta aldi berean gozaten ikasi nuen. 2015ean igo nintzen estreinakoz mendira eta ordudandik ez diot mendian ibiltzeari laga.

◆ Zerk erakarri zintuen horrenbeste?

Egunerokoaz deskonektatzeko leku ezin hobe da mendia. Niri, bereziki, asko gustatzen zait mendiaz bakardadean gozatzea, norbere buruarekin lortzen den lasaitasun sentrazio hori ematen didalako. Aldapan gora sufritzen ari zarenean ez daukazu astirik beste ezertan pentsatzeko eta desagertu egiten dira buruhauste guztiak. Gainera, txakurra ere badut eta hark ere izugarri gozatzen du gure ibilaldietan.

◆ Zein izan zen parte hartu zenuen aurreneko mendi lasterketa?

Zestoako Kobaz Koba Trail mendi lasterketa, 2016an. Beti izango dut gogoan. Paleolitoaren amaieran lehen gizakiak bizi izandako hainbat koba daude Zestoako lurretan, eta horietatik pasatzen da ibilbidea. Hortaz, hasieratik konturatu nintzen leku eta paisaia zoragarriak ezagutzeko aukera ematen duela kirol honek. Lasterketengatik izan ez balitz ez nituzte mendi eta paraje asko ezagutuko, bidea jakin gabe ez nintzatekeelako nire kabuz joatera ausartuko. Bidea markatuta egoten da lasterketetan eta hala lasai ibiltzen naiz mendian. Gehien gustatu zaizkidan mendietara itzuli naiz gero lasterketetan ikasitako bideei esker.

◆ Zer motatako mendi lasterketak gustatzen zaizkizu?

Ibilbide motzeko mendi lasterketetan parte hartzen hasi nintzen, 15 bat kilometrokoak edo asko jota 21 kilometrokoak: Kilimon traila Mendaron, Flysh traila Zumaian... baina ibiliaz konturatu nintzen era horretako lasterketa bizietan ez nuela gozatzen. Nahiago dut erritmo motelagoan ibili, baina tiraldi luzeagoetan. Arnasa luzeko lasterkaria naiz, diesela. Orduan mendiko martxak egiten hasi nintzen, Elgoibarko Itzulia, Lastur-Itziar-Deba...

“Elgoibartarrak herriko jendeari laguntzeko prest daudela ikusi dut”

horietan gehiago gozatzen dut, nere ezaugarrietara hobeto moldatzen direlako.

◆ Lasterketetan lehiatzerakoan, zein izaten dira zure helburuak?

Badakit ez dudala lasterketarik irabaziko, eta postu on bat egitea ere ez da izaten nire helburua; hau ez baita nire bizimodua, *hobbya* baizik. Afizio moduan hartzen dut,

bai, baina era berean ahal dudan guztia ematera behartzen dut nire burua, gozatzeko egiten dudala ahaztu gabe. Izan ere, badaukat lehiakortasun puntu hori eta gogoko dut lasterketetan sentitzen den adrenalina hori. Irteera aurretik sentitzen den urduritasun puntu horrek erakartzen nau. Gainera, jendea ere ezagutzen da lasterketetan eta giro polita sortzen da.


◆ Pandemiaren eraginez lehiaketarik jokatze ez horrek nola eragin ditu?

Entrenatzen ibili arren, helbururik ez izateak zaildu egiten du dena. Irizpide handiegirik gabe ibili izan naiz beti mendian. Gaur Karakate-Atxolinera noa, bihar berriro... eta beti egurra ematen. Horregatik, nahas-mahas horrekin amaitzeko, entrenatzaile personal bat behar nuela erabaki nuen eta Lander Azpiazu elgoibartarraren aginduetara jarri nintzen orain dela lau bat hilabete. Pandemiagatik lasterketarik ezingo zutela antolatu ikusita, motibazioari eusteko erabaki nuen, nire buruari erronkaren bat jartzea zela onena erabaki genuen. Halaxe bururatu zitzaidan Karakate bost aldiz sei orduren azpitik igo eta jaitea. Mugaraino eraman nahi nuen nire gorputza, zertarako gai nintzen jakiteko. 24 orduz Karakatera gora eta behera aritzea zen nire lehen asmoa, gorputzak ematen duenera arte, baina ideia pixka bat findu eta sei ordurekin nahikoa zela erabaki genuen.

◆ Nolako esperientzia izan zen Karakatera bost joan-etorri jarraian egitea?

Espero nituenak baino sentazio hobeak izan nituen, eta esperientzia ikaragarria izan zen, batez ere, nire buruaren aurkako erronka pertsonala zenaren inguruan sortu zenagatik. Ez nuen nire asmoaren berri inon iragarri, baina hala eta guztiz ere, jende mordera gerturatu zitzaidan, denak laguntzeko prest. Elgoibartarrak herriko jendeari laguntzeko prest daudela erakutsi dit erronka honek. Egin nituen joan-etorri guztietan izan nituen laguntzaileak, eta horientatik izan ez balitz, ez nuen lortuko. Nire lagun Iker Arrillagak lau joan etorri egin zituen nirekin. Pilar Arriola eta bere seme Iker ere izan nituen bidelagun, Iker hiru joan-etorritan. Azkeneko igoeran pott eginda nindoan Karakaterantz eta Iñigo Larizekin egin nuen topo Aterpe parean. Azkeneko igoera horretan niri laguntzera zetorren, eta izugarri lagundu ninduten haren animoek. Ez dut harreman handiegirik berarekin, baina bera moduko kirolari batek niri lagundu izanak esanahi handia du niretzat. Era berean, herritarren animoak ere izan nituen. Laugarren igoera hasi nuen, Kalegoen plazan zegoen jendea hasi zen konturatzen zerbait gertatzen ari zela, eta uste dut bosgarrenorako ahoz aho zabaldu zela nire erronkaren berri, azken jaitsieran giro aparta





baitzegoen plazan. Ezustean harrapatu ninduten jendearen txaloek eta animoek. Ford auto etxekoek, Kaia tabernako Marta Diezek eta Astigarraga kirol dendakoek niri laguntzeko izan duten prestutasuna ere aipatu nahi nuke, eta baita Amaro Estrukturasek emandako laguntza ere. Eskerrak eman nahi dizkiet guztiei. Eta nola ez, nire familiakoei. Horiek beti ditut laguntzeko prest, eta pandemia egoera batean egongo ez bagina, prest zeuden salda eta txorizoa banatzeko plazara hurbiltzen zirenei ere. Hurrengo urtean berriro errepikatzen asmoa daukat. Gabon aurreko astean izango da berriro ere, Gabonetan nahi adina jan eta edan nahi dudalako.

◆ Bistan da gustua hartu diezula erronkei.

Hala da bai. Hurrengo ere prest dut: astelehenetik igandera, astebetetz, egunero maratoi erdi bat korritzeko asmoa dut (otsailaren 22tik 28ra, astelehenetik ostiralera 16:00-18:30 eta asteburuetan 09:00-11:30), 1.000 metroko desnibel positiboarekin. Ibilbidea honakoa izango da: Txarriduna Hoteletik irten, Karakateraino igo, eta handik Irukurutzetaraino joan-etorria egin Atxolinetik pasaz, bai joanekoan eta bai bueltakoan. 21 kilometro guztira. Eta noski, nire asmoa ahalik eta azkarren egitea da. Saiakera guztiak bi ordu eta erdiren azpitik egin nahi ditut. Agian ez du asko denik emango, baina egunero martxan jarri behar da eta egun denak ez dira berdinak izango, dela euria egiten duelako, gorputza alfer esnatu delako edo lanean egun txarra izan dudalako. Egoera horiei guztiei buelta eman behar zaie mendira joan eta bi ordu korrika ibiltzeko. Esfortzu fisikoaz, gainera, mentala ere bada. Oraingoan nire erronka honetan parte hartu nahi duten guztiak gonbidatzen ditut parte hartzera. Nirekin etorri nahi duen oro izango da ongi etorria. Erronka honek gainera, Tenerifen korritu nahi dudan ultra lasterketa baterako prestatzeko lagunduko dit.

◆ Tenerifera joan nahi duzu orduan?

Denboraldi honetan ez da mendi lasterketarik egongo Euskal Herrian, baina Kanariar uharteetan jokatzekoa den bat begiz jota dau-

kat: Tenerife Bluetrail. Itsas mailatik Teide sumendiaren tontorrera hegotik igo eta ipar aldetik jaitsi behar da, 108 kilometroko ibilbidea osatzeko. Izenmatea noiz zabalduko zain nago, ia aurrera doan ikusteko. Ekainaren 5ean izango litzateke. Horretarako entrenamendu moduan bururatu zait erronka berri hau, astebetean 141 kilometro egingo ditudalako. Sasoian jartzeko eta elikadurarekin eta erritmoekin probaldiak egiteko erabiliko dut. Laz nahi nuen egin Tenerifekoa, baina ez nengoen behar bezala prestatuta eta aurtengorako prestatzen hasi nintzen Landerrekin batera. 2022an Donostia-Bilbao egiteko asmoa ere badaukat. 120 kilometroko ibilbidea da eta Elgoibartik pasatzen da. Hurrengo urterako erronketako bat izango da. G2Hrako ere izena emanda nengoen iaz, baina hori ere bertan behera gelditu zen.

◆ Karakaten entrenatzen duzu. Nolako mendia da?

Egia aitortu behar bada, Karakate ez da mendi polita. Hori bai, entrenamenduak egiteko oso ondo dago, kilometro gutxitan desnibel handia duelako. Horrek asko indartzen zaitu. Sufritzea gustatzen zaieneztat ondo dago. Karakate gainetik Irukurutzetara bitarteko bidea, aldiz, itzela da. Ia lava da eta izugarriko bistak ditu, Euskal Herriko mendi ia guztiak ikus daitezke-eta. Eta barre egingo duzu, baina mendira joatetik gehien gustatzen zaidana jaistea da. Jaitsi ahal izateko igo egin behar delako joaten naiz mendira. Karakateko tontorreraino telesferiko bat jarriko balute denbora guztian erabiliko nuke. Adibidez, Kalamuako jaitsiera proban parte hartu nuen orain dela pare bat urte eta sekulako esperentzia izan zen. Aldapan behera joatea, bideko oztopen aurrean gelditzeko gai izango zaren jakin gabe, arnasa hartzeko astirik gabe eta une batzutan beldurra pasatuz. Hori da gustatzen zaidana. Jaitsierekin lotutako erronka bat ere badaukat. Karakateko tontoretetik Kalegoen plazako frontoiko txapa ukitzera arte zenbat denbora behar nuen, alegia. Nire nahia 15 minutuan jaistea bazen ere, azkenean 15 minutu eta 30 segundoan egin nuen jaitsiera. Karakola itxita zegoelako, bestela lortuko nuen (barrez).

*“Mendira joatetik
gehien
gustatzen zaidana
jaistea da”*

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta titulazioa daukat. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka.

☎ 643 772 326

Adinekoak zainduko nituzke, orduka.

☎ 620 712 478

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago.

Orduka, eta gabez ere bai. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut.

☎ 683 580 665

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Baserrietan ere bai.

☎ 602 407 338

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago.

Urteetako esperientzia daukat. Etxeak, lantegiak edo bulegoak garbitzeko ere prest nago.

☎ 632 238 016

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientziaduna.

☎ 655 094 780

Adinekoak zainduko nituzke. Euskalduna naiz eta esperientzia handia daukat.

☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile aritzeko prest, orduka eta baita asteburuetan ere, beharraren arabera.

☎ 632 108 280

Asteburuetan lan egiteko prest nago, orduka. Esperientzia daukat adinekoak zaintzen. Agiriak legez.

☎ 632 344 209

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta beste edozein lanetarako prest nago. ☎ 632 116 534

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko pertsona bat behar dugu, etxeko langile moduan lan egiteko.

☎ 675 706 139

Taberna batek janaria etxeetara eramateko langileak behar ditu.

☎ 680 489 416

BPXport enpresak Olaizaga kiroldegiko eta Mintxeta kirolguneko harreretan lan egiteko lagun bat behar du. Administrazioritzan eskarmentua izatea eta euskaraz jakitea ezinbestekoa. elgoibar@bpxport.es helbidera bidali behar da curriculumua.

BESTELAKOAK.....

Bizikleta estatikoa salgai. Gutxi erabilia; berri-berri dago. 50€.

☎ 645 729 230

Bost hektarea inguruko lursaila salgai Urnobilan. ☎ 678 826 986

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean bada lokal bat komunitatearen telebista-instalaziorako sarbiderik ez duena eta jabeak ez du gastu horretan parte hartzen. Jabeak, baina, antena paraboliko bat jarri nahi du estalkian. Jakin nahi nuke komunitateak baimenik eman behar duen horretarako edo lokalak instalazio hori egiteko eskubidea duen.

Jabekideek edo errentariak zerbitzu horiek eskuratzeko eskubidea dutela dio legeak, eta azpiegituraren erabilera partekatua bermatzen du. Ildo horretan, jabetza horizontaleko erregimeneko eraikin baten jabekideek eskubidea dute telekomunikazio-zerbitzuetara jotzeko instalazio komunaren bidez, teknikoki egokitu badaiteke, edo bestela, sistema indibidualen bidez. Beraz, ezin da zalantzan jarri baimena behar duen ala ez, ezta zenbateko gehiengo behar duen ere. Azken batean, jabe horrek legez emandako eskubidea dauka, eta komunitateak ezin du inolako akordiorik, estatutu-araurik edo barne-araubideko erregelamendurik erabili horren kontra. Hala ere, antena instalatzeko, jabeak pauso jakin batzuk jarraitu behar ditu: Komunitateko presidenteari jakinarazi beharko dio bere asmoa, eta, eraikinean horretarako azpiegitura bat baldin badago, azpiegitura hori erabili beharko du.

Ondorioa: eraikinean azpiegiturarik ez badago, edo jabekideak edo errentariak eskuratu nahi duten zerbitzua emateko gai ez bada, edo beste bat instalatzen ez bada, eta lehendik zegoena egokitzen ez bada, komunikatzaileak egokitzapena egin ahal izango du dagozkion telekomunikazio-zerbitzuak jaso ahal izateko.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Gorka!** 12! Familiako guztion partez, muxu asko.



Zorionak, **Ibai,** gaur 7 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Ane, Jare, Naia, Aratz eta anaia Lierren partez.



Zorionak gure *marakasario* txikixari, asteazkenean 3 urte beteko dituzulako. Segi beti bezain alai, **Irati!** Etxekoan, eta, bereziki, Eireren partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Jakes!** 6 urtetxo handi! Muxu potoloak, etxekoan partez.



Zorionak, **Heleenka!** Otsailaren 18an, 9 urte potolo! Muxu erraldoia etxeko guztion partez gure printzesa ausartari!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

ZERBITZU BERRIA!

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Mota guztietako arropa konpontzen hasi gara.
Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu,
zeure neurrira.

Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:

**PUNUZKO EHUNAK,
TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

**SAUBER MIKROUHIN-LABEA
3-21WG SERIEA**

79 €

- Lurrun-funtzioa duen mikrouhin-labe bakarra.
- Janari osasuntsuagoa eta koipe gutxiagokoa.
- 20 litro.
- 700 W.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

21 DOMEKA

12:30 eta 17:00 Kontzertua: 'Puro relajjo' mariatxien taldeak bi emanaldi eskainiko ditu Herriko Antzokian.

22 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: 'Gako feministak maitasun harremanak negoziatzeko'. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23 MARTITZENA

18:00 Literatur tailerra: 'Chesil Beach'. Gotzon Garate udal liburutegian.

24 EGUAZTENA

19:00 Epeletan literatur tailerra: 'King Kong' teoria. Gotzon Garate udal liburutegian.

19:00 Elkarretaratzea: Pentsiodunen eta Jubilatuen taldeak deituta, murrizketen kontrako eta 24 orduko larrialdi zerbitzua eskatzeko elkarretaratzea egingo dute anbulatorio aurrean.

25 EGUENA

19:00 Antzerkia: 'Dramatitragoak: Etor-kizunari begira eta ezin izan zena izan'. Aita Agirre kultur kafean. Emanaldirako mahaia erreserbatu daiteke: 681 397 579 (Noel).

26 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'La chica del tren'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Ilargi guztiak'

19 barikua: 19:00

20 zapatua: 19:00

21 domeka: 19:00

22 astelehena: 19:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

19 BARIKUA	20 ZAPATUA	21 DOMEKA	22 ASTELEHENA	23 MARTITZENA	24 EGUAZTENA	25 EGUENA	26 BARIKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704

688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR





III. URTEURRENA

Mikel Gorostiza Etxaniz

2018ko otsailaren 22an hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da,
domekan, otsailaren 21ean, 11:30ean,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Zure bihotz handia eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.**

Etxekoak



VII. URTEURRENA

Amaia Arrizabalaga Arakistain

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.

*Zu joateak nahiz utzi zigun
hutsune bat nabarmena,
sekula ere ez dut ahaztuko
bizi izan genuena.
Lehen mina zena leundu da, ta
orain senti dugun pena
bihurtuko da zu izan zinen
guztiaren oroimena.
Zinen ahizpa bat ezin hobea
barre zabal bat zuena,
zuri eskerrak daukagu orain
indarra eta kemena.
Nahiz laburregia izan pasa
genuen denbora dena,
zu ezagutu ez bazintugu
ez ginateke garena.*

Etxekoak



VII. URTEURRENA

Bittor Alberdi Elorza

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

**Konturatu orduko aurrera urteak.
Baina beti gogoan zurekin bizi izandako uneak.
Sinetsi nahi dugu nonbait elkartuko garela.
Bitartean kementsu eta irribarrez
bizitzan zehar zuk nahiko zenukeen bezala.
Beti gure bihotzean.**

Etxekoak



► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

Biena, S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

IMAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Aroztegia · Carpintería
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
txenda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA

Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

► Igeltseritza
► Pintura

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

► Leihoak
► Iturgintza
► Elektrizitatea

► Aroztegiak
► Erreformak